



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Ogasun, Lehendakaritza eta Ekonomia Sustatzeko Sailek 2015. urterako Bizkaiko Aurrekontu Proiektuen informazio batzordeak hasi ditue Batzar Nagusietan

Bilbon, 2014ko azaroaren 7an.

2015. urterako Bizkaiko Aurrekontu proiektuak gaur hasi dau izapidetzea Batzar Nagusietan, Ogasun eta Finantzak, Lehendakaritza eta Ekonomia Sustatzeko Sailetako arduradun nagusien agerraldiagaz, Jose Maria Iruarrizaga, Unai Rementeria eta Imanol Pradale, hain zuzen be. Arduradun horreek, euri jagokezan kontuen ardatz nagusiak azaldu ditue. Saioek datorren astean –astelehenean eta martitzenean– jarraituko dabe, generako diputatuen agerpenagaz Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen aurrean.

Jose Maria Iruarrizaga Ogasun eta Finantzako foru diputatuak zabaldu ditu informazio batzordeak, 2015eko Bizkaiko Aurrekontu Proiektua azalduz. Bere agerraldiaren hasieran Bizkaiko Foru Aldundi osoaren aurrekontuak azaldu ditu, orokorrean, Bizkaiko Batzarretan urriaren 31n erregistrautako proiektuaren arabera. Holan, Foru Aldundiak 1.571 milioi euro izango ditu bere kudeaketarako (beharginen ordaintzen atala barne). Diru-sarrera osoak 7.252 milioi eurokoak izango dira, aurreko ekitaldian baino %4,8 gehiago. Azkenean, Aldundiaren 8 sailek izango daben kopuru osoa –beharginen gastuak, zorra eta interesak kontau barik– 1.146 milioi eurokoa izango da, aurreko urtean baino %5,4 gehiago.

Horren ostean, Iruarrizaga Ogasun eta Finantzako sailari jagokon aurrekontuan zentru da. 130,6 milioi euroko aurrekontua eukiko dau, aurreko urteko aurrekontua baino %4,15 gehiago.

Ogasun eta Finantzako sailaren arduradunak programaz programa azaldu ditu bere sailaren kontuak, eta baita aldaketa garrantzitsurik izan daben alderdiak be. Holan, Batzarretako taldeen galderei erantzunez, Kaputxinoen kalean dagoan Ogasuneko egoitzak hobetzeko beharrak egiteko inbertsioen atalera beste 1,5 milioi bideratuko dirala azaldu dau Iruarrizagak.

Barrikuntzen artean, Iruarrizagak Foru Plan Informatikorako ekarpen handiagoa egingo dala be azpimarratu dau. Atal horrek %7ko hazkundera izango dau, eta 30,1 milioi eurotara helduko da. Programa horren barruan azpimarragarria da inbertsino errealean atalak izango dauen %11ko igoerea, eta baita beste hazkunde bat be, Lantiketrik “garapen informatikorako egiten dan ordu kopuruak” gora egin dauelako. Iruarrizagak, Ikuskaritza zerbitzurako aplikazio informatiko barria diseinetako aurrekontuak 160.000 euro jasoten dituala be azpimarratu gura izan dau.

2014koakaz alderatuta igon egiten diran beste partida batzuk, 6 milioi euro hartzen dituan ordaintza orokorreko kreditu funtsari eta aseguru poliza barriak zabaltzeari buruzkoak dira, gaur egungo asegurauak “galerak” erregistrau ditualako, Aitor Cobo Aurrekontu zuzendariak adierazo dauenez.

Ondarearen Kudeaketa eta Arriskuen Prebentzino programari jagokonez, partidea %32 murrizten dan arren –17,5 milioitik 11,8 milioira jaisten da– batez be 2015ean ez dalako San Mames Barrirako inolako ekarpenik egingo, Iruarrizagak partida barriak azpimarratu ditu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Artxandako jolas parkean, Aldundiaren esku dagozan eraikin batzuetan zaharbarritze lanak egiteko eta Peritu Eskola erauzi ostean eraikuntza proiektua egiteko.

Katastrorako partidei eutsi izanari buruzko informazioa eskatzen eban PSE-EE taldearen galderari erantzunez, partida hori ez dala igongo baieztu dau Iruarrizagak, datorren urtean ez dalako aurreikusten katastroa eguneratzerik. Data “egokia 2016ko urtarrila izango da”, Udalen laguntzea beharrezkoa dalako. Datorren urtean egingo diran Foru eta Udal hauteskundeak oztopoa izaten ari dira barrikuspen horretarako, udalakaz izandako hartu-emonetan ikusi denez.

LEHENDAKARITZAKO AURREKONTUEK %45EKO IGOERIA IZANGO DABE

Lehendakaritza Sailak, bere aldetik, 35,5 milioi euroko aurrekontua eukiko dau 2015ean, beharginen gastuen atala aparte itxita. Hau da, igoerea %45,19koa izango da, Unai Rementeria sail horretako arduradunak, ondoren egin dan batzorde batean egiaztatu dauenez. Igoera hori, herritarrei “zerbitzu hobea emotera bideratutako inbertsino asko” gauzatu diralako gertatu da, “gastuari eusteko esfortzu handia egin dan arren”:

Kontuek “aurreko ekitaldien ildoak” jarraitzen dabe. Aurrekontuaren parte nagusia egoera ekonomiko larrian dagozan Udalei laguntzera eta Foru Administrazioa modernizetara eta barriztetara bideratuko da”tresna teknologikoei jagokenez eten barik eguneratuta egon daiten”. “Beharrezkoa da sistema modernizetea, krisi ekonomikoa dala eta aurreko ekitaldietan gastuari eutsi jakolako”, azaldu dau.

Partida barrien artean, Batzar Nagusietarako hauteskundeetara bideratuko diranak dagoz. Partida horreek aurrekontuen 3 milioi euro jasoko ditue. Aurtengo ekitaldian ez da holango gasturik egon.

Administrazioa modernizetako ekintzen artean, Barrikuntzarako 6,2 milioi euroak eta Biscaytik Fundazioaren ekintzetara bideratuko diran 4,7 milioiak azpimarratu behar dira. Arlo horretan, Udalak kontabilidade plan orokor barrira doban egokitzeko tresna informatiko barria azpimarratu behar da. Fundazio horren bitartez sinadura elektroniko barria be garatuko da.

Rementeriak azaldu dauenez, bere sailak egoera larrian dagozan toki erakundeei laguntzak emoten jarraituko dau, udal horreen egoera bideratzeko. Bere esanetan, “oso gitxi” dira. Horretara milioi bat euro bideratuko dira.

Suteak itzaltzeko zerbitzuak igoera “txikia” izango dau aurrekontuan, 2,3 milioi eurotara heltzeko. Partida horretatik 350.000 euro Uriosteko parkerako “ama-ibilgailu bat” erostera bideratuko dira. Foru Aldundiaren parke mobikorra 9 ibilgailutan murriztuko da, 25 ibilgailu barri erosiko dira, baina 34 ibilgailuri baja emongo jake.

Beharginen atala aparte azaldu da. 190,3 milioi euro baino gehiago bideratuko dira beharginen ordainketetarako, igaz baino %0,91 gehiago, aldaketa garrantzitsuak dagozalako ordainketa osagarrietan, Elkarkidetzara egiten diranetan eta aseguru polizetan eta erretiratze baimenetan. 20 lanpostu barri sortuko dira Ikuskapen Fiskal zerbitzurako (8 ikuskari, 8 azpi-ikuskari, 2 teknikari eta 2 likidatzaile).



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Udal finantzazinoari jagokonez, Rementeriak azaldu dau Udalek 811,8 milioi euro jasoko dituela Udalkutxaren bitartez, hau da, 2014ko ekitaldi honetan baino %5,9 gehiago, eta beste 13 milioi Gizartekutxa funtsaren bidez, %5,37 gehiago, gizarte zerbitzuak finantzetan jarraitu ahal izateko.

78,5 MILIOI EKONOMIA SUSTATZEKO

Imanol Pradales Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatuak itxi ditu Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean gaurko programauta egon diran saioak, eta 2015. urtean bere sailak izango dauen aurrekontua azaldu dau, 78,5 milioi euro, aurton baino %1,8 gehiago. Aldundiko arduradunak hasieran esan dauenez, bere sailaren kontuetan “enpleguak eukiko dau lehentasuna”, eta zeregin horretara bideratuko da sailaren aurrekontuaren “4 eurotik bat”. Arreta berezia eskiniko jake gazteei eta denpora luzez langabezian dagozanei.

Pradalesek esan dauenez, Enplegurako Ez Ohiko Funtsa finkatu egingo da, 4 milioi euroko ekarpenagaz, auto-enplegurako laguntzek gora egingo dabe (%15,4) eta baita gazteen kontratazioak be (%13,3) eta indartu egingo dira enpleguari laguntzeko eta talentua sustatzeko generako programa guztiak.

Arlo horretatik kanpo, azpiegituren atalean, Pradalesek Gernikako Elkartegia eta Aeronautikako Fabrikazino Aurreratuko Zentroa “martxan jartea” azpimarratu dau.

Ekintzailtzari eta enpresak sustatzeari jagokonez, datorren urteko aurrekontuetan enpresa barrizailleak sortzeko eta garatzeko programak bultzatuko dira, eta programa horreetan 2,4 milioi inbertituko dira. Ganera, mikro-finantzazina bideratutako Seed Capital Bizkaia funtsa indartu egingo da, 600.000 euroko ekarpenaren bitartez.

Barrikuntzaren arloan, diputatuak azaldu dauenez bultzada barria emongo jako automobilgintzaren sektoreari, 5,5 milioi euro bideratuko diralako Automotive Intelligence Center (AIC) izenekora, proiektuaren bigarren eta hirugarren faseak osatzeko.

Nazioartekotzearen eta Bizkaiaren kanpo sustapenaren arlora 5,6 milioi euro bideratuko dira, aurreko urtean baino %5,7 gehiago. Ekitaldi handietara zuzendutako partidea, barriz, murriztu egingo da, 2014an Munduko Saskibaloia Txapelketea jokatu dalako eta NBA-gaz sinatutako akordioari aurre egin behar izan jakolako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Hacienda, Presidencia y Promoción Económica inician en Juntas Generales las comisiones informativas del Proyecto de Presupuestos de Bizkaia para el año 2015

Bilbao, a 7 de noviembre de 2014.

El proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2015 ha iniciado hoy en las Juntas Generales su tramitación informativa con la comparecencia de los máximos responsables de los departamentos de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, Presidencia, Unai Rementeria, y Promoción Económica, Imanol Pradales, quienes han explicado los ejes principales de la cuentas que tienen asignadas. Las sesiones seguirán la semana próxima -lunes y martes- con la presencia del resto de diputados en la Comisión de Economía y Hacienda.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha abierto las comisiones informativas desgranando el Proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2015. El inicio de su exposición ha estado centrado en ofrecer un repaso de los presupuestos de toda la Diputación Foral de Bizkaia, según el proyecto registrado en la cámara vizcaína el pasado 31 de octubre. Así, la Institución foral contará con 1.571 millones de euros para gestión propia (incluido el capítulo de retribuciones del personal), de unos ingresos totales que ascienden a 7.252 millones, un 4,8% más que el ejercicio anterior. Al final, el disponible de los 8 departamentos forales -sin gastos de personal, ni deuda, ni intereses- asciende a 1.146 millones, un 5,4% más.

A continuación, Iruarrizaga se ha centrado en el presupuesto asignado al Departamento de Hacienda y Finanzas que asciende a 130,6 millones de euros, lo que equivale a un aumento del 4,15% con respecto a lo presupuestado el año pasado.

El responsable del área de Hacienda y Finanzas ha ido programa a programa explicando las cuentas de su departamento y aquellos aspectos que sufren alguna variación importante. En este sentido, y a preguntas de los grupos junteros, Iruarrizaga ha explicado que se consignan 1,5 millones más en el capítulo de inversiones para acometer obras de mejora en las dependencias de Hacienda en la calle capuchinos.

Entre las novedades, Iruarrizaga ha destacado también un mayor aporte al Plan Informático Foral que experimenta un incremento del 7% hasta alcanzar los 30,1 millones de euros. En este programa destaca el incremento de un 11% en inversiones reales y un incremento por el aumento de “horas de desarrollo informático” desde Lantik. Iruarrizaga ha querido destacar también los 160.000 euros presupuestados para diseñar una nueva aplicación informática para el servicio de Inspección.

Otras partidas que se elevan respecto a las de 2014, son las referidas al fondo de crédito de pago global que alcanza los 6 millones de euros y a la apertura de nuevas pólizas de seguro, ya que la asegurada actual ha registrado “pérdidas”, según el director de Presupuestos, Aitor Cobo.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Con respecto al programa de Gestión del Patrimonio y Prevención de Riesgos, pese a que la partida baja un 32% -de 17,5 millones pasa a 11,8- principalmente porque en 2015 no habrá ninguna aportación para San Mames Barria, Urrizaga ha destacado nuevas partidas para el parque de atracciones de Artxanda, para acometer reformas en algunos edificios forales y para elaborar un proyecto constructivo tras el derribo de la Escuela de Peritos.

A pregunta del PSE-EE que solicitaba información sobre el mantenimiento de las partidas para el catastro, Iruarrizaga ha confirmado que esta partida no sube, ya que no está prevista la actualización del catastro durante el próximo año. La fecha “idónea será enero de 2016”, ya que se necesita la colaboración de los ayuntamientos. Las próximas elecciones forales y municipales a celebrar el año que viene están siendo un obstáculo para esta revisión, a tenor de los contactos que ha mantenido con los municipios.

LOS PRESUPUESTOS DE PRESIDENCIA CRECEN UN 45%

Por su parte, el Departamento de Presidencia dispondrá en 2015 de un presupuesto de 35,5 millones de euros, excluyendo el capítulo de gastos de personal, lo que supone un incremento de 45,19%, según ha confirmado su responsable, Unai Rementeria, en una comisión posterior. Este incremento obedece a la materialización de “numerosas inversiones encaminadas a prestar un mejor servicio” a los ciudadanos, pese al “notable esfuerzo en la contención del gasto”.

Las cuentas siguen la “línea de ejercicios anteriores”. La mayor parte del presupuesto irá destinado a ayudar a los ayuntamientos con dificultades económicas y a la modernización e innovación en la Administración foral para “estar permanentemente actualizado en cuanto a herramientas tecnológicas”. “Toca hacer una modernización del sistema” después de la contención del gasto en ejercicios pasados por culpa de la crisis económica, ha explicado.

Entre las partidas más novedosas destacan las destinadas a las elecciones a Juntas Generales, las cuales absorberán 3 millones de euros de los presupuestos, gasto que no existía en el presente ejercicio.

Entre las acciones para modernizar la Administración destacan los 6,2 millones de euros para Innovación y las actuaciones de la Fundación Biscaytik, que absorberán 4,7 millones, y en donde destaca una nueva herramienta informática para que los ayuntamientos se adapten de forma gratuita al nuevo plan general contable. A través de esta fundación, se desarrollará también una nueva firma electrónica.

Rementeria ha dicho que su departamento seguirá apoyando a las entidades locales en dificultades, que son una “minoría”, con la vista puesta en su saneamiento. Para ello, se destina un millón de euros.

El servicio de extinción de incendios experimenta un aumento “leve” en su presupuesto hasta alcanzar los 2,3 millones. De esta partida, se reservan 350.000 euros para comprar un “vehículo nodriza” para el parque de Urioste. El parque móvil de la Diputación se reducirá en 9 vehículos, ya que se adquirirán 25 nuevos vehículos y se darán de baja 34.

Capítulo aparte ha merecido el de Personal. Serán más de 190,3 millones de euros el destinado a retribuciones del personal, que supone un 0,91% más con variaciones importantes en las



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

retribuciones complementarias, a Elkarkidetza y a las pólizas de seguro y permisos de jubilación. Se crearán 20 nuevas plazas para el servicio de Inspección fiscal (8 inspectores, 8 subinspectores, 2 técnicos y 2 liquidadores).

Con respecto a la financiación municipal, Rementeria ha precisado que los ayuntamientos recibirán 811,8 millones de euros a través de Udalkutxa, lo que representa un incremento del 5,9% respecto al ejercicio 2014, y otros 13 millones por medio del fondo Gizartekutxa, con un aumento del 5,37% con el objeto de seguir financiando servicios sociales.

78,5 MILLONES PARA PROMOCIÓN ECONÓMICA

El diputado foral de Promoción Económica, Imanol Pradales, ha cerrado las sesiones programadas para hoy en la Comisión de Economía y Hacienda, para explicar el proyecto de presupuestos de 2015 de su área que alcanzará los 78,5 millones de euros, un 1,8% más. El responsable foral ha comenzado su intervención asegurando que las cuentas de su departamento “priorizarán el empleo”, materia que se llevará “uno de cada cuatro euros” del departamento, para poner el “foco” de manera especial en los jóvenes y en los desempleados de larga duración.

Pradales ha dicho que se consolida el Fondo Extraordinario de Empleo con una dotación de 4 millones de euros, se incrementarán las ayudas al autoempleo (un 15,4%) y a la contratación de jóvenes (13,3%), y se reforzará el resto de programas de apoyo al empleo y a la promoción del talento.

Fuera de este ámbito, en el capítulo de infraestructuras, Pradales ha destacado la "puesta en marcha" del Elkartegi de Gernika y el Centro de Fabricación Avanzada de Aeronáutica.

En lo que se refiere al emprendimiento y la promoción empresarial, en los presupuestos del año que viene se impulsarán los programas de creación y desarrollo de empresas innovadoras, en los que se invertirán 2,4 millones, y se reforzará el fondo de Seed Capital Bizkaia destinado a la microfinanciación con una nueva aportación de 600.000 euros.

En innovación, el diputado ha resaltado que se dará un nuevo impulso al sector de la automoción con la consignación de 5,5 millones de euros para el Automotive Intelligence Center (AIC) para completar la segunda y tercera fase del proyecto.

En el ámbito de la internacionalización y promoción exterior de Bizkaia se destinarán 5,6 millones de euros, lo que supone un 5,7% más. Disminuye en cambio la partida destinada a grandes eventos como consecuencia de que en 2014 se celebró el mundial de baloncesto y hubo que hacer frente al acuerdo con la NBA.